Esp. kodea: 2020CHOZ0010
Titularra: ENPLEGU SAILA

Gaia: INTERREG EUROPE SHREC proiektu europarraren kudeaketa administratiborako asistentzia teknikoa
Hasiera data: 2020/03/27

XEDAPEN TEKNIKOEN AGIRIA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ "INTERREG-EUROPE SHREC" PROIEKTUAREN KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA EUROPAR FONDOEN ESKAKIZUNEN ARABERA EGITEKO ASISTENTZIA TEKNIKOA KONTRATATZEKO.	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA GESTIÓN ADMINISTRATIVA DEL PROYECTO "INTERREG-EUROPE SHREC" CONFORME A LAS EXIGENCIAS DE LOS FONDOS EUROPEOS.**
1.- KONTRATUAREN XEDEA	**1.- OBJETO DEL CONTRATO**
Agiri honen xedea da Interreg-Europe Shrec egitasmoaren kudeaketa administratiboa FEDER funtsen eskakizunen arabera egiteko laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratazioa zuzendu behar duten xedapen teknikoak ezartzea.	El presente documento tiene por objeto establecer las disposiciones técnicas que han de regir la contratación del servicio de asistencia técnica para la gestión administrativa del proyecto Interreg-Europe Shrec de acuerdo con las exigencias de los Fondos FEDER.
2.- SHREC PROIEKTUAREN EZAUGARRI OROKORRAK	**2.- CARACTERÍSTICA GENERALES DEL PROYECTO SHREC**
Shrec proiektua Interreg-Europe programan kokatzen da. SHREC izena proiektuaren izenburuaren akronimotik datorkio: "SHifting towards Renewable Energy for transition to low Carbon energy". Interreg-Europeko Trantsizio Energetikoa estrategiaren barruan kokatzen da, eta bere xedea da CO2 emisioen murrizketan eragitea, energia berriztagarrien erabilera sustatzearen puruz. Proiektuak 4 urteko iraupena izango du, 2019ko abuztuaren 1etik 2023ko uztailaren 31 arte. Bere aurrekontu globala 1.844,165 €koa da; Europako FEDER Funtsaren finantzaketa du, guztizko kosteen % 85ean, Interreg-Europeko laugarren deialdiaren bitartez; Arrasateko Udalaren aurrekontua lau urtetarako 153.160,00 €koa da, eta Udalaren ekarpen ekonomikoa horren % 15ekoa da, hau da 22.974 €. Proiektuak zortzi bazkide ditu, bakoitza Europako estatu batekoa: • Herbehereetako Groningen hiriko Hanze University of Applied Sciences: proiektuko liderra • Eslovakiako Innovation And Energy Agency • Letoniako Vilnius Gediminas Technical University • Rumaniako South Muntenia Regional Development Agency • Italiako Piemonteko Gobernua • Arrasateko Udala • Frantziako Auvergne Rhône-Alpes Energy Environment Agency • Suediako Mid Sweden University	El proyecto Shrec se enmarca en el programa Interreg-Europe, y su nombre, SHREC, es el acrónimo del título del proyecto "SHifting towards Renewable Energy for transition to low Carbon energy". Ubicado dentro de la estrategia Transición Energética de Interreg-Europa, su objetivo es incidir en la reducción de las emisiones de CO2 mediante el fomento del uso de energías renovables. El proyecto tendrá una duración de 4 años, desde el 1 de agosto de 2019 hasta el 31 de julio de 2023. Su presupuesto global es de 1.844.165 €y está financiado por el Fondo FEDER Europeo en el 85% de sus costes totales a través de la cuarta convocatoria de Interreg-Europe; El presupuesto correspondiente al Ayuntamiento de Mondragón asciende a 153.160,00 € para cuatro años, de los cuales el Ayuntamiento deberá asumir el 15% restante, esto es, 22.974 € El proyecto consta de ocho socios, cada uno de ellos de un Estado Europeo: • Líder del proyecto Hanze University of Applied Sciences de la ciudad holandesa de Groningen • Innovation And Energy Agency de Eslovaquia • Vilnius Gediminas Technical University de Letonia • South Muntenia Regional Development Agency de Rumania • Gobierno italiano de la región de Piamonte • Ayuntamiento de Arrasate • Auvergne Rhône-Alpes Energy Environment Agency de Francia • Mid Sweden University de Suecia

3.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN IZAERA ETA DESKRIBAPENA	**3.- NATURALEZA Y DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO A PRESTAR**
Kontratatu nahi den laguntza teknikoak aspektu hauek estali beharko ditu: - Proiektuaren kudeaketa administratiboa eta ekonomikoa Interreg-Europek eskatzen duen eran eta denboran egitea: - Arduratzea burutu beharreko izapideak garaiz eta era egokian egiteaz. - Arduratzea ezinbestean Udalak eginbeharreko izapideak burutzeko abisua emateaz udal zerbitzu teknikoei, eta izapide horiek era eta epe egokian egin ahal ditzaten jarraibide zehatzak emateaz. - Udal zerbitzu teknikoei Interreg-Europeri buruz sortuko zaizkion zalantzak argitzen laguntzea. - Proiektuko europar autoritateekin hartu emanak eramatea kudeaketa ekonomiko eta administratiboko gaietarako. - Proiektuko espainiar autoritateekin hartu emanak eramatea kudeaketa ekonomiko eta administratiboko gaietarako.	La asistencia técnica que se pretende contratar deberá cubrir los siguientes aspectos: - Realizar la gestión administrativa y económica del proyecto en la forma y tiempo requeridos por Interreg-Europe: - Velar por la correcta realización de los trámites necesarios en tiempo y forma. - Comunicar aviso a los servicios técnicos municipales para la realización de los trámites que necesariamente deba realizar el Ayuntamiento, así como instruir con precisión a dichos servicios técnicos para que puedan realizarlos en la forma y plazo adecuados. - Ayudar a los servicios técnicos municipales en la resolución de las dudas que puedan surgir en relación con Interreg-Europa. - Comunicarse con las autoridades europeas del proyecto para temas de gestión económica y administrativa. - Comunicarse con las autoridades españolas del proyecto para asuntos de gestión económica y administrativa.
4.- ESKAINTZEN EDUKIA	**4.- CONTENIDO DE LAS OFERTAS**
Lehiaketan parte hartzen duten enpresen eskaintzek eduki hauek izango dituzte: - Eman beharreko zerbitzuaren edukia zehaztea - Zerbitzua emateko modua definitzea - Arrasateko Udalak programari buruz egindako kontsultei erantzuteko denbora. - Zerbitzua emateko kronograma - Zerbitzua ematen parte hartuko duten lan taldeko kideen aurkezpena - Europako programen kudeaketan izandako esperientziaren xehetasuna: kudeatutako programen kopurua, programa mota, urtea, emandako zerbitzua eta hartzailea zehaztuta. - Taldeko kideen hizkuntza-ezagutzei buruzko xehetasuna, eta, hala badagokio, bakoitzaren titulazio espezifikoa.	Las ofertas de las empresas participantes en el concurso incluirán los siguientes contenidos: - Especificación del contenido del servicio a prestar - Definición del modo en que se prestará el servicio - Tiempo de respuesta a las consultas sobre el programa planteadas por el Ayuntamiento de Arrasate. - Cronograma de prestación del servicio - Presentacion del equipo de personas que participarán en la prestación del servicio - Detalle de la experiencia en la gestión de programas europeos: número de programas gestionados, especificando tipo de programa, año, servicio prestado y destinatario. - Detalle relativo a conocimientos de idiomas de los miembros del equipo, señalando, si se da el caso, titulación específica.

5.- KONTRATUAREN PREZIOA	**5.- PRECIO DEL CONTRATO**
Lan honen kostea, hiru urtetarako, gehienez jota, HAMAZORTZI MILA ETA SEIEHUN EURO (18.600 €, BEZ aparte) izatea aurreikusita dago (urtealdi bakoitzerako 6.200 €, BEZ aparte); lehiaketan parte hartuko duten enpresek prezio horren azpiko eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte.	El precio máximo estimado para la realización de este trabajo asciende a DIECIOCHO MIL SEISCIENTOS EUROS (18.600 €, IVA excluido) para el total de los tres años de duración del proyecto (por cada anualidad, 6.200 €, IVA excluido); las empresas licitadoras podrán presentar ofertas por debajo de este precio.
6.- EGIKARITZE-EPEA	**6.- PLAZO DE EJECUCIÓN**
Laguntza teknikoa proiektuaren kudeaketa administratiboa amaitu arte emango da, 2021eko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31 arte.	La asistencia técnica se prestará hasta la finalización de la gestión administrativa del proyecto, desde el 1 de enero de 2021 hasta el 31 de diciembre de 2023.
7.- UDALAREN DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA ERABILTZEA	**7.- USO DE INFORMACIÓN Y DOCUMENTACIÓN DEL AYUNTAMIENTO**
Kontratuaren xede den lana egiteko, Udalak duen dokumentazioa zein informazioa adjudikaziodunaren eskura jarriko du. Adjudikaziodunak ezingo ditu erabili Udalak emandako informazioa zein agiriak, kontratuaren xedea betetzeko baino, eta haiek babesteko arduraduna izango da; hortaz, erantzun beharko du baldin eta informazioa edo eta agiriak behar ez bezala erabiltzen baditu, edo hondatu edo galtzen baditu. Adjudikaziodunak betebehar hori bete ezean, horrek sortuko lituzkeen kalte guztiak ordaindu beharko dizkio Udalari.	El Ayuntamiento pondrá a disposición de la empresa adjudicataria la documentación e información de que disponga para la realización del trabajo objeto del contrato. La empresa adjudicataria no podrá utilizar ni la información ni los documentos facilitados por el Ayuntamiento para fines ajenos al cumplimiento del objeto del contrato, siendo responsable de su protección, y en su caso, deberá responder por su uso indebido, deterioro o pérdida de dichos documentos o información. El adjudicatario deberá indemnizar al Ayuntamiento por todos los perjuicios que de ello se deriven en caso de incumplimiento.
9.- KONTRATUAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK	**9.- CRITERIOS LINGÜÍSTICOS DEL CONTRATO**
Kontratista gai izango da euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez jarduteko, bai tarteko dokumentazioa egiterakoan, bai gastuen zuriketako txostenak eta dokumentazioa osatzerakoan.	El contratista será capaz de expresarse en euskera, castellano e inglés, tanto en la elaboración de la documentación intermedia como en la elaboración de los informes y documentación de justificación de gastos.

• Euskara: Kontratua burutu behar du(t)en pertsonak egiaztatu beharko du(t)e euskara daki(t)ela Europako Erreferentzia Markoko C1 gaitasun mailakoa edo baliokidea (3. Hizkuntza Eskakizuna). Hizkuntza gaitasuna egiaztatu ahal izango da honela: 1. Agiriak aurkeztuta (tituluak edo ziurtagiriak), zeintzuk egiaztatuko duten zerbitzua eman behar duen pertsonak hizkuntza gaitasuna duela. 2. Udalak ezartzen duen proba egitea (kalifikazio horrek ez du izango ezelako baliorik kontratazio espediente honetatik kanpo). • Ingelesa: Kontratua burutu behar du(t)en pertsonak egiaztatu beharko du(t)e ingelesa daki(t)ela, Europako Erreferentzia Markoko C1 gaitasun mailakoa edo baliokidea. Hizkuntza-gaitasun honi dagokion titulazioa aurkeztuta egiaztatu beharko da..	• Euskera: La(s) persona(s) responsable de la ejecución del contrato deberá(n) de acreditar conocimientos de euskera al nivel C1 del Marco Europeo de Referencia o equivalente (perfil lingüístico 3). La capacitación lingüística podrá acreditarse de las siguientes formas: 1. La presentación de la documentación (títulos o certificados) que acredite que la persona que vaya a prestar el servicio cuenta con la capacitación lingüística requerida. 2. Mediante la realización de la prueba que establezca el Ayuntamiento (esta calificación no dispondrá de ningún tipo de validez fuera del presente expediente de contratación). • Inglés: La(s) persona(s) responsable de la ejecución del contrato deberá(n) de acreditar conocimientos de inglés al nivel C1 del Marco Europeo de Referencia o equivalente. Dicha capacidad lingüística tendrá que acreditarse en todo caso con la presentación de la correspondiente titulación.
10.- ZERBITZUA EMATEKO BEHARREZKOAK DIREN BALIABIDEAK	**10.- RECURSOS NECESARIOS PARA PRESTAR EL SERVICIO**
Kontratistaren obligazioa izango da zerbitzua emateko beharrezkoak diren baliabideak jartzea: 1. Baliabide teknikoak: o Ekipo informatikoak o Internet bidezko konexioa o Telefonoa 2. Pertsonen lantaldea: o Zerbitzua emateko teknikari adituak	Será obligación del contratista poner los medios necesarios para la prestación del servicio: 1. Medios técnicos: o Equipos informáticos o Conexión por Internet o Teléfono 2. Equipo de personas: o Técnicos especialistas en la prestación del servicio

11.- ZERBITZUA ORDAINTZEKO ERA	**11.- FORMA DE PAGO**
Ordainiketak zatika egingo dira, zerbitzua emandako seihilero bakoitzaren amaieran, kontratistak epealdiari dagokion faktura aurkeztuta, eta Udalak horri berarizko onespena emanda.	Los pagos se realizarán de forma fraccionada, previa presentación por parte del contratista de la factura correspondiente al final de cada semestre de prestación del servicio, y tras su aprobación expresa por los servicios técnicos del Ayuntamiento.